carismático lider de Al Fatah, Marwan Barguti, para mejorar su situación dentro de los centros de detención, aumentar las visitas de los familiares y terminar con la política de aislamiento y la detención administrativa usada por Israel para arrestar si presentar cargos ni celebrar juicios.

Desde entonces, los palestinos en Gaza, Cisjordania y Jerusalén Este han mostrado su apoyo a los huelguistas a través de diferentes concentraciones, el levantamiento de tiendas de solidaridad, la celebración de un "Día de la Ira" o la convocatoria hace de una huelga general con un seguimiento masivo inusual en los últimos años.

La huelga tiene un objetivo compartido por todos: recuperar los derechos elementales que habían conseguido a lo largo de las décadas anteriores, y que Netanyahu y su ministro de la policía, Gilad Erdan, les han quitado con el cínico eslogan de que “la prisión no es un campamento de verano”.

Esta huelga ha entrado ya en su segundo mes y desde Naciones Unidas muestran gran preocupación por la salud de los presos y palestinos y sobre la situación de los Derechos Humanos en los Territorios Palestinos Ocupados, Michael Lynk, reclamando a Israel que cumpla el Derecho Internacional respecto a las detenciones de presos.

«El uso por parte de Israel de la detención administrativa no cumple con las circunstancias extremadamente limitadas que contempla el Derecho Humanitario, y priva a los detenidos de las salvaguardias legales básicas garantizadas por este»



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net estatu

**Michael Warschawski** aktibista israeldar antikolonialista, preso-politiko izandakoa eta Informazio Alternatiboko Zentroaren sortzaileak artikulu batean hau dio: “txarrena da preso palestinarrek borrokari eta gose-greba ugariei esker lortu dituzten eskubide urriak mesedetzat hartzen dira, askotan kolektiboki kentzen dizkiete eskubide horiek kartzelan duten jarrerarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, baizik errepresalia moduan Agintaritza Palestinarra gobernu israeldarraren begietara behar bezain esanekoa ez denean”. Benjamin Netanyahuk presio-modu hau maiz erabili du, eta hamar urte daramatza presoen eskubideak sistematikoki murrizten, duela 30 urteko egoerara iristeraino.

Preso politiko palestinarren egoera jasanezina da, eta guri dagokigu gobernu israeldarra presionatzea amore eman dezan biktimak eragin baino lehen. Horretarako, bat egin behar dugu sare sozialetan dabilen “Gatza Ura desafioa” bezalako ekimenekin; bertan, partikularrek nahiz palestinar edo mundu arabiarreko pertsonai ospetsuek espetxeratutakoen ekintza babesten dute.

Orain da momentua Palestinaren kausari gure elkartasuna adierazteko.

Baina hau ez da herri palestinarrak jasaten duen bidegabekeria handietariko bat besterik, Israelgo Gobernu Sionistarengandik jasaten duen okupazio militarraren ondorioz herritarren egoerak nabarmen egin baitu okerrera azken urteetan.

**Michael Warschawski,** veterano activista israelí anticolonialista, ex prisionero político y cofundador del Centro de Información Alternativa dice en un artículo que “ lo peor es que los pocos derechos que los presos palestinos han conseguido gracias a sus luchas y a numerosas huelgas de hambre se consideran favores, que a menudo se les quitan colectivamente por razones que no tienen nada que ver con su comportamiento en prisión, sino dentro del marco de represalias cuando la Autoridad Palestina no es suficientemente dócil a los ojos del gobierno israelí de turno”. Benjamin Netanyahu ha utilizado este medio de presión con frecuencia, y de hecho, desde hace diez años los derechos de los presos han sido sistemáticamente recortados, retrocediendo a la situación de hace 30 años.

La situación de los presos políticos palestinos se ha convertido en una situación insoportable y a nosotros y nosotras nos incumbe presionar al gobierno israelí a ceder antes de que haya victimas, apoyando y sumándonos a iniciativas como “El Desafío Sal Agua” que circula por redes sociales con vídeos en los que particulares o famosos palestinos o del mundo árabe respaldan el gesto de los encarcelados.

Es ahora más que nunca el momento de mostrar nuestra solidaridad con la causa Palestina.

Pero esto no es más que una de las grandes injusticias que vive el pueblo Palestino, pues a consecuencia de la ocupación militar que sufre de manos del Gobierno Sionista de Israel, la situación que vive la ciudadanía ha empeorado notablemente durante los últimos años.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net estatu

Israelek urratzen du palestinarrek askatasunez mugitzeko duten eskubidea, “Lotsaren Harresia” eraikitzea bezalako neurriekin; horma horrek Apartheid bat eragin du, 800 km luze eta 9 metro altu da, eta Hagako Nazioarteko Epaitegiak legez kontrakotzat jo du, besteak beste palestinarrei eragozten dielako beren soro landuetara, osasun-zentroetara edo ikastetxeetara joatea.

Israel viola el derecho a moverse libremente de la población palestina con medidas como la construcción del “Muro de la vergüenza”, un Apartheid, un muro de 800km y nueve metros de altura que el Tribunal Internacional de La Haya ha declarado ilegal y que impide a los y las palestinas ir a sus campos de cultivo, centros de salud o centros de estudios, entre otros.

Israelek nazioarteko komunitatearen konplizitatea duenez herri palestinarraren giza eskubideak sistematikoki urratzeko, Palestinako gizarte zibilak abian jarri zuen 2005ean BDS nazioarteko kanpaina (Boikota, Desinbertsioa eta Zigorrak), helburu hauekin:

Visto que Israel cuenta con la complicidad de los estados de la comunidad internacional en la violación sistemática de los DDHH del pueblo Palestino, la sociedad civil de Palestina puso en marcha en el año 2005 la campaña internacional denominada BDS (Boikot, Desinversión y Sanciones) cuya finalidad son:

- Zisjordania, Jerusalem Ekialdea eta Gazako Zerrendako okupazioa amaitzea, Israelek 1967an okupatu baitzituen ilegalki

- El fin de la ocupación de Cisjordania, Jerusalem Este y Franja de Gaza, territorios ocupados ilegalmente por Israel en 1967

- Palestinara itzuli ezin diren 7,5 milioi errefuxiatu palestinarrek itzultzeko eskubidea izatea

- El derecho al retorno de los 7,5 millones de refugiado y refugiadas palestinas que no pueden volver a Palestina

- Israelen herritar arabiar-palestinarren berdintasuna aitortzea

- El reconocimiento de la igualdad de la ciudadanía árabe-palestina dentro de Israel.

Hori dela eta, Errenteriako Udalak honako mozio hau onartzen du:

Por todo ello, el Ayuntamiento de Errenteria aprueba la siguiente moción:

1. Elkartasuna adieraztea gose-greban dauden preso palestinarrei eta giza eskubideak urratuta dituen komunitate palestinar osoari.

1. Expresar su solidaridad con los presos Palestinos en huelga de hambre, así como de toda la comunidad Palestina que ve vulnerados sus DDHH.

2. Apartheid israeldarraren aurkako Boikota, Desinbertsioa eta Zigorrak (BDS) indarkeriarik

2. Adherirse a la campaña global no violenta y antirracista de Boicot, Desinversión y Sanciones



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net estatu

gabeko eta arrazakeriaren aurkako kanpainari atxikitzea; kanpaina gizarte zibil palestinarrak jarri zuen abian 2005ean eta milaka erakunde sozial eta publikok bere egin dute. Udaleko departamentuetan aztertuko dute atxikipen hori nola egin behar den.

(BDS) contra el Apartheid israelí, que fue iniciada por la sociedad civil palestina en el 2005 y adoptada por miles de organizaciones sociales e instituciones públicas. La aplicación concreta de dicha adhesión será estudiada por los Departamentos municipales correspondientes.

3. Konpromisoa hartzea politika, merkataritza, nekazaritza, hezkuntza, kultura, kirol edo segurtasuneko hitzarmen, kontratu edo akordiorik ez sinatzeko erakunde edo enpresekin, Israelek herri palestinarraren autodeterminaziorako eskubidea aitortu eta nazioarteko zuzenbidea betetzen ez duen arte; hau izango litzateke bidea:

3. Comprometerse a no establecer convenio, contrato o acuerdo de tipo político, comercial, agrícola, educativo, cultural, deportivo o de seguridad con instituciones, empresas y organizaciones hasta que Israel no reconozca el derecho a la autodeterminación del pueblo palestino y acate el derecho internacional, mediante:

a. 1967an okupatu zituen lurraldeetako okupazioarekin eta kolonizazioarekin amaitzea eta Apartheideko horma eraistea

a. La finalización de la ocupación y colonización de los territorios que ocupó en 1967 y el desmantelamiento del muro del Apartheid.

b. Israelgo herritar diren palestinarren eskubideak aitortzea berdintasun osoz

b. El reconocimiento de los derechos de los palestinos y palestinas ciudadanas de Israel a la plena igualdad.

c. Errefuxiatu palestinarren itzultzeko eskubidea aitortzea eta errespetatzea

c. El reconocimiento y el respeto del derecho al retorno de los refugiados y refugiadas palestinas.

4. Akordio honen arabera, **Errenteriako Udalak** Palestinako Okupazioaren aurkako Sare Solidarioarengandik jasoko du Israelen Apartheidik gabeko Espazioaren zigilua, egiaztatzen duena herri palestinarraren eskubideen aldeko konpromisoa hartua duela eta autodeterminaziorako eskubidea onartzen duela. Zigilu hori herritarrei ezagutzera emango zaie.

4. En virtud de este acuerdo el **Ayuntamiento de Errenteria** recibirá de la Red Solidaria contra la Ocupación Palestina, el sello Espacio Libre de Apartheid israelí, que da fe de su compromiso con los derechos del pueblo palestino, incluyendo el derecho a la autodeterminación. Dicho sello será dado a conocer al conjunto de la ciudadanía.

5. Sustatuko du lankidetzan jardutea BDS mugimenduarekin, estatu mailan jarduten den

5. Fomentará la cooperación con el movimiento BDS, articulado a nivel estatal en la Red Solidaria Contra la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net estatu

Palestinako Okupazioaren aurkako Sare Solidarioaren bidez, eta mugimendua osatzen duten tokiko erakundeekin, bermatzeko mozio hau behar bezala aplikatzen dela.

Ocupación de Palestina, y con las organizaciones locales que la componen, para garantizar la correcta aplicación de esta moción.

6. Eskualdeko gobernuei eta gobernu zentralari eskatuko die neurriak har ditzaten Israelekin dituzten harreman pribilegiatuen ondoriozko konplizitatea amaitzeko edo EBren eta Israelen arteko Asoziazio Akordioa eteteko, akordio horren 2. artikuluak urratzen duelako giza eskubideei buruzko akordioa.

6. Instará a los gobiernos regionales y al gobierno central a que tomen todas las medidas necesarias para poner fin a la complicidad que se deriva de las relaciones privilegiadas con Israel o la suspensión del Acuerdo de Asociación entre la UE e Israel, por vulnerar el artículo 2 de dicho acuerdo sobre Derechos Humanos.

7. Akordio hau bidaltzea Espainiako gobernuko presidenteari, Eusko Jaurlaritzako lehendakariari eta Israelek eta Palestinak Espainiako Estatuan dituzten enbaxadei.

7. Remitir este acuerdo al Presidente del Gobierno de España, al Lehendakari del Gobierno Vasco y a las Embajadas de Israel y de Palestina en el Estado Español.

Ondoko adierazpenak egin dira:

Se producen las siguientes intervenciones.

* Basurto andreak (Errenteria IrabaziZ) euskaraz adierazi du aipatu nahi duela mozioa aurkeztu zenetik presoek gose greba utzi egin dutela. Negoziaketak oso opakuak izan dira, dena sekretupean eraman da eta inork ez daki oso ondo ze akordiotara iritsi diren zehazki. Israelgo Gobernuak dioenez, bisita kopurua bakarrik handitu diete. Bere taldeak mozioa mantendu nahi du eta elkartasun osoa adierazi preso jarraitzen dutenei oraindik gauza asko gelditzen zaizkielako, *detención administrativa* deitzen dena badirudi mantendu egiten dela, eta beste hainbat eskubide, espetxeetan giza eskubide guztiak urratu egiten direlako, ez bakarrik presoekin, baizik eta Palestinako gizarte osoarekin. Elkartasuna adierazten dute eta aprobetxatu nahi dute Israelgo Gobernua Palestinaren gain aplikatzen

*Interviene en euskera la Sra. Basurto (Errenteria IrabaziZ) manifestando que quiere comentar que desde que se presentó la moción, la huelga ha sido suspendida. Todas las negociaciones han sido muy opacas, todo se ha llevado en secreto, la verdad es que nadie sabe muy bien a qué acuerdos han llegado. Según el Gobierno de Israel, les han ampliado el número de visitas. Su grupo quiere mantener la moción y expresar su solidaridad a las personas que siguen presas, todavía les quedan muchas cosas, la detención administrativa parece que se mantiene, y muchas otras transgresiones de los derechos humanos, que se producen no sólo en la cárcel, sino en toda la sociedad palestina. Manifiestan su solidaridad y desea aprovechar para denunciar el apartheid que está aplicando el



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net estatu

ari den apartheid sistema salatzeko. Uste dute udaletxe honek zerbait ere egin behar duela bide horretan. Amaitzeko, palestinar herriari babesa adierazi nahi dio.

Gobierno de Israel sobre Palestina. Por lo tanto, también desde este ayuntamiento se tiene que hacer algo al respecto. Para acabar, expresa todo el apoyo al pueblo de Palestina.

*Oyarbide andreak (EAJ/PNV) hitz egin du eta adierazi du bere taldeak mozio alternatibo bat aurkeztu nahi duela Palestinari eta Giza Eskubideei buruz, ez daki zer den onena, irakurri edo banatzea.

*Interviene la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV) manifestando que su grupo quiere presentar una moción alternativa sobre Palestina y los Derechos Humanos, no sabe si es mejor leerla o repartirla.

*Alkateak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du nahi badute irakur dezatela, baina kopiak badaude, hobe dela banatzea. Denek inoiz egin duten arren, osoko bilkuran hobe da 21 kopia ateratzea 21 zinegotziek irakurtzeko.

*Interviene el Sr. Alcalde (Orereta/Errenteria EHBildu), manifiesta que si quieren pueden leer la moción pero considera que si tienen las copias hechas, mejor repartirlas. Los demás también lo han hecho alguna vez, pero cuando se presenta algo en la Sesión Plenaria es mejor sacar 21 copias porque es conveniente que los y las 21 concejales lo puedan leer.

Ondoren Oyarbide andreak honako mozio alternatiboa aurkeztu du:

Seguidamente la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV) da lectura a la siguiente moción alternativa:

**PALESTINARI ETA GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO MOZIOA**

**MOCIÓN SOBRE PALESTINA Y EL RESPETO A LOS DERECHOS HUMANOS**

1. Errenteriako Udalak, Espainiako Gobernuari eta Nazioarteri, Palestina estatua, Nazioarteko Zuzenbide publikoaren mende, aitor dezaten eta Europar Batasunarekin koordinaturik, Estatu palestinarra, Estatu subirano, ondoko, demokratiko eta independente gisa, Israeleko Estatuarekiko elkarbizitzan, bakean eta segurtasunean bizi dadin bultzatzeko eskatzen die.

1. El Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno español y a la comunidad internacional a reconocer a Palestina como Estado, sujeto de Derecho Internacional Público y a promover de manera coordinada con la UE el reconocimiento del Estado Palestino como Estado soberano, contiguo, democrático e independiente que conviva en paz y seguridad con el Estado de Israel.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net estatu

2. Errenteriako Udalak, Kontseilu europarraren Kanpo Harremanetarako 2012-12-10eko ondorioei abala ematen die, non zehazten den “Israeleko Estatua eta EB-ren arteko akordio guztiek, argi eta garbi eta espreski azaldu behar dute, Israelek 1967an okupatutako lurraldeenganako aplikaezintasuna, Golango gainak, Cisjordania, Jerusalen ekialdea eta Gazako zerrenda”.

2. El Ayuntamiento de Errenteria avala las conclusiones del Consejo Europeo de Relaciones Exteriores de 10-12-2012, en las que de especifica “todos los acuerdos entre el Estado de Israel y la UE deben indicar de manera inequívoca y expresamente su inaplicabilidad a los territorios ocupados por Israel en 1967, como los Altos del Golan, Cisjordania, incluyendo Jerusalen este, y la franja de Gaza”.

3. Errenteriako Udalak, dio berriro eta azpimarratzen du, Nazioartean aitortutako Giza Eskubideak direla nazioarteko gatazkak konpontzeko bidea, Nazio Batuen eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren arabera.

3. El Ayuntamiento de Errenteria reitera y subraya los Derechos Humanos internacionalmente reconocidos como cauce de resolución pacífica de los conflictos internacionales, de conformidad con el sistema de Naciones Unidas y la Declaración Universal de los Derechos Humanos.

4. Errenteriako Udalak, pertsona guztien giza eskubideen errespetua exijitzen du, preso dauden pertsonak barne.

4. El Ayuntamiento de Errenteria exige el respeto a los derechos humanos todas las personas, incluídas las personas presas.

Honako mintzaldiak izan dira:

*Oyarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz ondokoa adierazi du:
Hau da gure mozio alternatiboa, gure taldeak eskubide urraketak jasotzen dituzten pertsona ororekiko elkartasuna adierazi nahi du, baita beren giza eskubideen errespetuaren alde gose greban egon diren Palestinako pertsonei ere. Adierazitako guztiagatik eta giza eskubideak negoziagarriak ez direlako, eskatzen diogu Israelgo Estatuari errespeta ditzan pertsona ororen eskubideak, presoenak barne. Pozten gara presioagatik pausu batzuk eman dituelako Israelgo Estatuak, baina iruditzen zaigu eskubide hauek oinarri-oinarrizkoak direla eta

Se producen las siguientes intervenciones:

*Interviene en euskera la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV):
Esta es nuestra moción alternativa, nuestro grupo quiere expresar su solidaridad con todas las personas que ven vulnerados sus derechos, también en el caso de las personas presas de Palestina que han mantenido una huelga de hambre en defensa de sus derechos. Por todo ello y porque los derechos humanos no es algo negociable, solicitamos al Estado de Israel que respete los derechos de todas las personas, incluidas las que están presas. Nos alegramos de que a consecuencia de la presión ejercida se hayan dado algunos pasos por parte de Israel, pero nos parece que tales derechos son


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net estatu

errespetatu behar direla, inongo presiorik gabe.

*Ruiz jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) hitz egin du eta adierazi du Euskal Sozialisten Udal Taldea jabetzen dela Israelgo Estatuaren eta Palestina artean ebazpena eta behin betiko bakea aurkitzeko dagoen zailtasunaz. Bere konpromisoa, berriz ere, agertu nahi du gatazkak bide diplomatikoen eta baketsuen bidez konpontzeko, hala nola Nazio Batuen Gutunean jasotako Oinarriekin ere, funtsezko osagaia baita nazio arteko komunitatearen eragile guztien artean elkarrizketa eraikitzeko. Joan den mendean bi gatazka handietan zehar gizarteak bizi izandako esperientziek agerian utzi dute ezinbestekoa dela nazioen arteko arazoak konpontzea bide diplomatikoen eta baketsuen bitartez, eta ez indarkeria erabiliz. Ezin gara axolagabeak izan Palestinako ehunka presok egin zuten gose greba Israelgo Estatuaren kartzeletan. Izan ere, errealitatezko eszenatoki batean kokatzen dira, non bertan Nazioarteko Komunitatea ezin den eragile pasibo bat izan horrenbeste urte daramatzan gatazka horretan. Alderdi Sozialistak bere solidaritatea agertu nahi du Palestinako presoekin. Tamalez, era berean, gaineratu behar dute, nahiz eta sozialistentzat garrantzitsua izan, konpromisoa dute elkarrizketa tresna gisa eta bakea azken helburu gisa izateko, lurralde horretan behin eta berriz errepikatzen diren giza eskubideen urraketak direla-eta, hala nola Nazio Batuen erakundeetan onartzen ari diren zigorrak eta ebazpenak aspaldiko urteetatik, baina bete ere egiten ez direnak, kasu askotan, ezta partzialki ere. Gaurkoan Udalbatza honetan lantzen ari gara Palestinako jatorriko presoekiko gure

totalmente básicos y que se deben respetar, sin que haga falta presionar para ello.

*Interviene el Sr. Ruiz (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que, desde el Grupo Municipal Socialistas Vascos son conscientes de la complejidad que conlleva la búsqueda de una resolución y paz definitiva entre el Estado de Israel y el de Palestina. Quieren mostrar, una vez más, su compromiso con la resolución de los conflictos por vías diplomáticas y pacíficas, así como también con los Principios recogidos en la Carta de las Naciones Unidas, pieza clave sobre la que se construye el dialogo entre todos los actores de la Comunidad Internacional. Las experiencias vividas por la sociedad durante los dos grandes conflictos del siglo pasado han evidenciado la imperiosa necesidad de resolver los problemas entre naciones a través de vías diplomáticas y pacíficas, y no mediante el uso de la fuerza. No pueden ser indiferentes ante la huelga de hambre que estuvieron realizando centenares de presos palestinos en cárceles del Estado de Israel, ya que les sitúan en un escenario de realidad, de la cual la Comunidad Internacional no puede ser un actor pasivo en este conflicto, que tantos años lleva durando. El Partido Socialista muestra su solidaridad con los presos palestinos. Lamentablemente también tienen que añadir, que pese a la importancia que tiene para los socialistas, por su compromiso con el dialogo como herramienta y la paz como objetivo final, las reiteradas vulneraciones de Derechos Humanos que se están perpetrando en el territorio, así como las sanciones o resoluciones que se están aprobando en los organismos de las Naciones Unidas desde largos años y que no se están cumpliendo, en muchos



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net estatu

solidaritatea, horrez gain, eztabaidatzen ari gara Errenteriako Udalak bat egingo duen ala ez Israelen aurkako Boikota, Ez-Inbertitze eta Zigortzeko kanpainarekin (BEIZ). Bere ustez 1. puntuak behera egiten du, izan ere, akordioa lortu dute eta gose greba bertan behera geratu da. Baina, kezkaturik daude mozio horren 3. puntuan udala behartu egiten delako boikot horretan parte-hartzera, hitzarmenak, kontratuak edo maila politikoko, nekazaritzako, hezkuntzako, kulturako, kiroletako edo segurtasuneko akordioak ez hartzeko Israelgo instituzioekin, enpresekin eta erakundeekin. Kontua da zalantza ugari dituztela hori guztia aurrera eraman ahal izateko, egun dagoen marko juridikotik, konkurrentzia libreko eta bazterkeria ezaren arauen aurka joango litzatekeelako. Gai hori nazioez gaindiko gaia da, Europako rolarekin zerikusi duena eta Israelekin dituen harremanekin. Hortaz, tokiko esparrua gainditzen du eta are gehiago, nazionala ere bai, eta ez dute ezagutzen zein ondorio eta onura izango dituen Palestinako presoentzat horrelako garrantzizko erabakiak hartzeak. Horregatik Udal Talde Sozialista abstenitu egingo da mozio horretan, Errenteria IrabaziZ y EH Bilduk aurkeztu duena, alegia. EAJ/PNV alderdiak aurkeztutakoa ziur daude Batzar Nagusietan aurkeztu zela. Bere taldeak horren alde bozkatuko luke.

casos, ni parcialmente. Hoy tratamos en esta Corporación Municipal, mostrar nuestra solidaridad con los presos de origen palestino en cárceles de Israel, además también debatimos la adhesión o no del Ayuntamiento de Errenteria a la campaña internacional de Boicot, Desinversión y Sanción a Israel (BDS). El punto 1 a su entender decae ya que se ha llegado a un acuerdo y la huelga de hambre ha sido suspendida. Pero les preocupa que en el punto 3 de esta moción se haga partícipe a este Ayuntamiento de ese Boicot a través de no establecer convenios, contratos o acuerdos de tipo político, comercial, agrícola, educativo, cultural, deportivo o de seguridad con instituciones, empresas y organizaciones de Israel, ya que tienen sus serias dudas que eso se pueda llevar adelante, desde el marco jurídico actual, puesto que iría contra las normas de libre concurrencia y no discriminación. Este es un tema supranacional que tiene que ver con el papel de Europa y sus relaciones con Israel y trasciende del ámbito local e incluso nacional y no tienen el conocimiento necesario sobre las consecuencias y beneficios para los presos palestinos de la toma de decisiones de este calado. Por todo ello el Grupo Municipal Socialista se abstendrá en esta moción, la presentada por Errenteria IrabaziZ y EH Bildu. La moción presentada por EAJ/PNV les consta que fue presentada a las Juntas Generales, su Grupo votaría a favor en este caso.

*Gracia jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du beren mozioa bi pilaretan oinarritzen dela. Lehenengoa, gose grebarena da, eta momentu honetan egia da bertan behera gelditu dela. Baina Palestinako presoek behin eta berriz

*Interviene en euskera el Sr. Gracia (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que su moción básicamente se apoya en dos pilares. El primero es la huelga de hambre. Es verdad que ha sido suspendida la huelga de hambre, pero también



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net estatu

egiten dute gose greba, momentuan bertan behera gelditu bada ere, babesa adieraztea inportantea da. Preso palestinarrek jasaten duten egoera, inkomunikazioa, dispertsioa, epaiketarik gabeko espetxeratzeak, izan ere, egoera ezagunak dira Euskal Herrian ere bai. Esan den bezala, opakua izan da negoziaketa, bi bisitarako eskubidea izan arren, dauden egoeran oso zaila izango da hori bermatzea. Elkartasuna adieraztea oso inportantea da. Bigarren oinarria, EAJren proposamenean agertzen ez den hori, kanpainarena da, eskubideen urraketa sistematikoa dagoela salatzeko. Komunitate internazionalak, Gurutze Gorriak eta hainbatek egindako salaketa da. Israelgo Estatuak egin dituen giza urraketak aipatuz eta dimentsioaren gordintasun eta errealitateaz konturatzeko, zenbait adibide jarri ditu: okupazio politikoa, Golan mendietako okupazio ilegalak -ONUren arabera-, Gorte Internazionalari bizkarra ematea, haurrak kartzelan edukitzea, hamabi-hamahiru urteko haurrak, fosforo zuria erabiltzea populazio zibilaren gain... eta hainbat eta hainbat. Beraz, kanpaina hori babestea beharrezkoa dela uste du. Fiodor Dostoievskiren esaldi batekin amaitu du. Tsarren Errusian kartzela ondo ezagutu zuen idazleak esaten zuen: “el grado de civilización de una sociedad se mide por el trato hacia sus presos” eta horrek balio du Palestinan, duela 200 urte tsarren Errusian, eta gaur egungo estatu espainiarrean.

es verdad que el colectivo de personas presas en Palestina a menudo hacen huelga de hambre y es importante expresarles todo el apoyo. Tienen conocimiento de la situación que soporta este colectivo, de incomunicación, dispersión, encarcelamiento sin previo juicio, son cosas conocidas en Euskal Herria. Como se ha comentado, la negociación ha sido bastante opaca, a pesar del derecho a dos visitas, en la situación en que viven les va a resultar muy difícil que se cumpla. Es muy importante expresar solidaridad hacia esas personas. El segundo fundamento es el de la campaña, y es algo que ya no aparece en la propuesta de EAJ. La campaña se activa para denunciar que se están vulnerando sistemáticamente los derechos humanos. La comunidad internacional, la Cruz Roja y otros organismos, lo están denunciando. Como ejemplos de las agresiones que ha llevado a cabo Israel a través de la historia, para tomar conciencia de la magnitud y de la crueldad de los hechos reales, menciona la ocupación política, las ocupaciones ilegales de Altos de Golan -según la ONU-, dar la espalda a la Corte Internacional, el encarcelamiento de menores de doce o trece años, utilizar el fósforo blanco contra la población civil...; por todo ello es necesario apoyar esa campaña. Termina con una cita de una persona que conoció bien la cárcel en tiempos del Zar de Rusia, Fiodor Dostoievski, que decía: “el grado de civilización de una sociedad se mide por el trato hacia sus presos” , y esto es válido para Palestina, para la Rusia zarista de hace 200 años, y para el estado español actual.

Alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du arazo bat dagoela, izan ere bi mozio daudenean ez dauka zentzurik pleno bat gai

*Interviene en euskera el Sr. Alcalde (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que existe un problema, cuando hay dos mociones que



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net estatu

beraren inguruan posizionatzeak. Uste du ezin dutela onartu EAJk egiten duen mozioa, ez edukian kontra daudelako, edukia ehuneko ehunean konpartitu dezakete, baina bazterrean geratzen diren gauza batzuk inportanteak dira. Grebari buruz, nahikoa da jartzea “que han estado en huelga de hambre”, benetan hori bada arazoa. Bere ustez, inportanteena da 6.500 preso palestinar daudela, 300 preso inguru adin txikikoak dira, preso gaixo asko daude espetxeetan eta bizi-baldintzak benetan prekarioak baino txarragoak dira, baina beste testuan presoen egoera ez da ageri. Bigarrenik, boikotarena, “comprometerse a no establecer convenios...”, agian legalki kasu batzuetan ezin dira gauza batzuk egin, baina beste kasu batzuetan legalki posible da. Akordio eta hitzarmenen kasuan, norberaren esku dago sinatzea edo ez, hori ez da kontu legala. Kasu honetan ere, inor ez da hitz egiten ari ilegalak diren bideak hartzeari buruz, hemen planteatzen da ahal diren kasuetan bide hori hartzea. Bere ustez, hori ez da ageri EAJren mozio alternatiboan. Beraz, bi elementu dira, bata, presoekiko elkartasuna, eta bigarrena, boikot kanpaina hori. Zalantzarik gabe, mundu mailako arazoa da eta estatu espainiarrak mundu mailako arazo honetan ere protagonismo berezia izan beharko luke, Saharan ez duena eta Saharan ez zuen ardura hartu, beharko luke bai Saharan eta bai Palestinan ere, justuki bi hauek direlako bigarren gerrate mundialaren ondoren geratzen diren bi kolonia eta Europako eta mendebaldeko estatuek inongo kasurik egiten ez dietenak. Bestalde, txikitasunetik eta lokaletik gauza asko egin daitezke, hau da, “pensar en global y actuar en local”.

Gaur hartzen den erabaki honek eta beste herri askotan erabaki hau hartzen bada, zein puntutaraino

tratan el mismo tema. En su opinión, no pueden aceptar la moción de EAJ/PNV, y no porque estén en contra del contenido, pueden compartirlo en un 100 por 100, pero hay cosas importantes que se han excluido. En cuanto a la huelga de hambre, es suficiente señalar en la moción “que han estado en huelga de hambre”, si de verdad ese es el problema. En su opinión, lo más importante es que hay 6.500 personas presas en Palestina, alrededor de 300 son menores de edad, muchas de esas personas están enfermas en las cárceles, y las condiciones de vida son más que precarias. La situación sobre estas personas que están presas no se menciona en el texto. El segundo punto es el boicot, “comprometerse a no establecer convenios...”, legalmente en según qué casos no podrá hacerse, pero en otros casos hay cosas que legalmente son posibles, entre otras cosas, acuerdos y también convenios, está en nuestra mano firmarlos o no, eso no es un asunto de legalidad. En este caso no se está hablando de elegir caminos ilegales, sino de hacer lo que sea factible en cada caso. Eso no aparece en la moción de EAJ. Hay dos elementos, uno, la solidaridad con el colectivo preso, y segundo, la campaña de boicot. Sin duda es una cuestión de alcance mundial, el estado español también debiera tener un protagonismo especial, que no tiene en Sahara, en Sahara no asumió su responsabilidad, tendría que asumirla tanto en Sahara como en Palestina, justamente porque son dos colonias que han quedado después de la segunda guerra mundial, y porque los países de Europa y los países occidentales no les hacen caso. Por otra parte, se pueden hacer muchas cosas desde lo pequeño y desde lo local, “pensar en global y actuar en local”. La decisión que se tome hoy y que se tome en otros

baldintzatu dezake hango estatutua, behingoz giza eskubideak errespeta ditzan, estatu palestinarra errespeta dezan, bere mugetan eta palestinarrek oso argi esan dute, 67ko muga horietan. Koherentziaz testu bakar bat atera beharko litzatekeela uste izanik, EAJren mozioaren kontra bozkatu beharko dute, nahiz eta bata bestearekin konpatibleak diren. Bestalde, Euskal Sozialistak taldeak esan duenaren bidetik, “que han estado en huelga de hambre” jarriz gero, lehenengo puntuarekin ez litzateke arazorik izango, eta hirugarren puntuarekin, inor ez da planteatzen ari legalak ez diren bideak hartzea, baizik eta justu kontrakoa. Halere, Euskal Sozialistak taldeak ez badu edukia konpartitzen, gaia ez da legaltasuna baizik eta edukia. Mozioa aurkeztu dutenei hori aldatzea proposatzen die, lehenengo puntuan “que han estado en huelga de hambre” testua egungo errealitatearekin koherenteagoa izateko eta bozketara ateratzea.

muchos pueblos, no se sabe hasta qué punto puede condicionar a aquel estado, para que de una vez se respeten los derechos humanos, para que se respete al estado palestino, sus fronteras. El pueblo palestino lo tiene claro, las fronteras del 67. Por eso, por coherencia se tendría que sacar un único texto, y tendrán que votar en contra de la moción de EAJ/PNV, aunque sean compatibles. Por otra parte, a propósito de lo que ha dicho el grupo Socialistas Vascos, si se pusiera “que han estado en huelga de hambre”, no habría problema con el primer punto, y con el tercer punto, nadie aquí está planteando optar por vías ilegales, justo lo contrario. Sin embargo, si el Grupo Socialista no comparte el contenido, ya no son las formas, no es cuestión de legalidad sino de contenido. Propone a quienes han presentado la moción un cambio en el primer punto: “que han estado en huelga de hambre”, para que el texto sea más coherente con la realidad actual, y sacarlo a votación.

*Peña andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du azaldutako irizpidearekin bat datorrela, baina gogora ekarri nahi du pleno honetan inoiz onartu zutela bi mozio gai berari buruz. Jakin nahi du orain markatutako irizpidea etorkizunean ere mantenduko den.

*Interviene en euskera la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que está de acuerdo con el criterio expuesto ahora, pero quiere recordar que en este pleno alguna vez han aceptado dos mociones sobre el mismo tema. Quiere saber si el criterio que se marca hoy se mantendrá también en el futuro.

* Alkateak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du ez duela esan mozio hau bertan behera geratu behar dela, baizik eta, bozkatu behar dela eta beraien bozka kontrakoa litzatekeela, koherentziagatik. Bestalde, 2011n, justu bera alkate izendatu eta lehenengo plenoan bi mozio egon ziren eta bat atera zenean bestea ez zen bozkatu, eta ondoren idazkariak aipatu zuen biak eraman beharko

*Interviene en euskera el Sr. Alcalde (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que una cosa es lo que se debe hacer de acuerdo al reglamento y otra cuál es su opinión personal, no dice que esta moción no se vote, sino que hay que votar y que su voto sería en contra, pero solamente por coherencia. En 2011 cuando le nombraron Alcalde, en el primer pleno hubo dos mociones, y

zirela bozketara. Irizpidea da biak ateratzea bozketara. EAJk nahi badu biak bozkatu, biak ateratzea nahi duelako, bere esku dago. Bere taldeak, berriz, baten kontra bozkatuko luke, bakarra izateko.

cuando una salió no se votó la otra, y posteriormente la Secretaria comentó que tendrían que haberse votado las dos. El criterio es que las dos se voten. Si EAJ/PNV quiere votar las dos, está en su mano. Por su parte, votarían en contra, para que salga una única.

*Peña andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du oraingo jarrera hurrengoan desberdina izan daitekeela.

*Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que la posición de hoy puede ser diferente la próxima vez.

* Alkateak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du desberdina izan daitekeela, testuinguruaren arabera. Bi mozio hauekin, batek esaten duena zentzu batean bestean sartuta dago, biak ateratzea ez zaio oso logikoa iruditzen, baina biak bozkatu behar dira, salbu EAJk nahi badu berea erretiratu. Koherentziaz, bakarra atera dadin eta eduki guztia barruan dagoenez, kontra bozkatu beharko lukete, ez mozioaren kontra daudelako, baizik eta bestea ateratzea nahi dutelako.

Interviene en euskera el Sr. Alcalde (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que puede ser diferente, según el contexto. En este momento, con dos mociones diferentes, lo que se dice en una está incluido en la otra, por ello no le parece lógico sacar las dos, pero se deben votar las dos, salvo que EAJ/PNV retire la suya. Su grupo por coherencia, para que salga una única y porque todo el texto está incluido, no porque estén en contra de la moción, sino para que salga una, votarán en contra.

*Ruiz jaunak (Euskal Sozialistak – Socialistas Vascos) hitz egin du eta, argitze hutsagatik, adierazi du jabetzen direla gose grebaren gaiaz, eta bat egiten dutela Israelen dauden Palestinako presoekin eta badakitela zein baldintzatan dauden. Alderdi Sozialista gai horretatik ez dago urrun, mozioan Al Fatah aipatzen zen, Alderdi Sozialistaren alderdi anaia, eta ezagutzen dutela hango errealitatea. Beti egon dira Palestinako estatua onartzearen alde, eta botoan abstenitzeak ez du esan nahi hor ez daudenik. Sahararekin beste horrenbeste gertatzen da, alderdikideek bertara bidaiatu dute solidaritatea erakusteko eta borrokan ari dira Palestina eta Sahara ere onartuak izan daitezen. Abstentzioak ez

*Interviene el Sr. Ruiz (Euskal Sozialistak – Socialistas Vascos) manifestando que sólo por aclarar, son conscientes del tema de la huelga de hambre, también se solidarizan con los presos palestinos que están en Israel y conocen sus condiciones. El Partido Socialista no es ajeno a esto, en la moción se mencionaba a Al Fatah, un partido hermano del Partido Socialista, conocen la realidad que existe. Siempre han estado a favor del reconocimiento como Estado de Palestina, la abstención en el voto no significa que no estén ahí. Con el Sahara pasa lo mismo, compañeros han viajado hasta allí para mostrar su solidaridad y están luchando por el reconocimiento del Sahara como los



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net estatu

du esan nahi aurka daudenik. Israelgo urratzeak oso errepikatuak dira, eta ez bakarrik Grazia jaunak aipatu dituenak, beste asko gehiago ere badira. Mozioaren 3. puntuan boikotaz haratago onarpena aipatzen da, Israelek bete egin behar du, bada 194 ebazpena, eta eskatu nahi dute Palestinako errefuxiatuei baimena ematea beren etxeetara itzultzeko, baina ebazpena ez da bete. Bere taldeak bat egiten du eta salatzen du, abstenitu egingo dira, izan ere, 3. puntuan aipatzen den boikota ez da bideragarria.

palestinos. La abstención no significa que están en contra. Las vulneraciones de Israel son reiteradas, no sólo las que ha mencionado el Sr, Gracia, hay muchas más. En el punto 3 de la moción más allá del boicot se menciona el reconocimiento, Israel debe cumplir, existe una resolución la 194, insta a que se permita a los refugiados palestinos a volver a sus hogares, resolución que no se ha cumplido. Su Grupo se solidariza y condena, se van a abstener porque según su criterio el boicot al que se hace referencia en el punto 3 no es viable.

* Alkateak (Orereta/Errenteriako EHBildu) adierazi du ez duela esan Alderdi Sozialista okupazioaren alde dagoenik, ezta gutxiago ere, baina abstentziorako arrazoirik ez du ikusten. Ez du zalantzan jartzen Alderdi Sozialistako kide batzuek Saharako herritarren alde egindako lana, txalogarria dena. Aipatu du espainiar estatuaren erantzukizun historikoa, ez du bere eginbeharra bete, ez Alderdi Popularrak ezta Alderdi Sozialistak ere.

*Interviene el Sr. Alcalde (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que no ha dicho que el Partido Socialista esté a favor de la ocupación ni mucho menos pero entiende que no hay motivos para abstenerse por las razones comentadas. Tampoco va a cuestionar el trabajo loable que algunos militantes del Partido Socialista han podido hacer en solidaridad con el pueblo Saharaui pero lo cierto es que la actitud del Estado español es la que es y la obligación histórica la tiene con el Sahara, nunca han cumplido con esta obligación, ni el gobierno del Partido Popular ni el gobierno del Partido Socialista.

* Basurto andreak (Errenteria IrabaziZ) aipatu du Alderdi Sozialistak hirugarren puntuan adierazitako beldurra. Gai hau udalerri askotan aztertu da Euskal Herrian eta estatu espainiarrean. Mozioa hainbat udaletxetan onartu da, inolako arazorik gabe. Aipatu nahi du diskriminazio ezaren klausulak debekatzen duela tratamendu ezberdina izatea jatorriaren arabera, debekatzen du herrialde bati baldintza onuragarriak ematea eta beste bati ezberdinak ezartzea, eta berdintasuna bermatzen du

*Interviene la Sra. Basurto (Errenteria IrabaziZ), hace referencia al miedo que expresa el Partido Socialista respecto al tercer punto. Este tema se ha trabajado en muchos municipios, tanto en Euskal Herria como en el Estado español. Esta moción se ha aprobado en muchos municipios y no ha existido problema alguno. Cree importante destacar que el alcance de la cláusula de no discriminación prohíbe el tratamiento diferenciado basándose en el lugar de origen prohibiendo que se apliquen a un país



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net estatu

inportatutako produktu eta tokiko produktuen artean. Hau ez da oztopoa eragile publikoek hainbat enpresa lizitazioetatik at uzteko, arrazoi politikoengatik. Kontratazio Publikoaren 3. artikuluak zehazten ditu bazterketa egin daitekeen kasuak. Akordio honetan ez da alde baten ezintasuna ezartzen moral publikoa babesteko behar diren neurriak jarri edo eskatzeko. Arau interaktiboak apurtzea eta nazioarteko bidegabekerietan parte hartzea, Israelek egiten duena, alegia, moral publikoaren urraketak dira, zalantzarik gabe.

condiciones favorables sin que se le apliquen las mismas a otros miembros y garantizando que se de igual tratamiento a bienes importados o de producción local. Esto no prohíbe que los actores públicos puedan excluir a empresas de licitaciones o contratos basándose en sus acciones políticas. El artículo 3 de la Ley de Contratación Pública señala los casos en los que la exclusión es posible. No se interpretará ninguna disposición del presente acuerdo en el sentido de que impida a una parte establecer o exigir el cumplimiento de medidas necesarias para proteger la moral pública. Las violaciones de normas interactivas y la participación en crímenes internacionales, que es el caso de Israel, constituyen violaciones de la moral pública sin lugar a dudas.

Alkateak (Orereta/Errenteriako EHBildu) adierazi du 1. puntua aldatu dela, beraz, ez legoke arazorik. 3. puntuari dagokionez, ezinezkoa balitz teknikariek esan beharko lukete.

*Interviene el Sr. Alcalde (Orereta/Errenteriako EHBildu), el punto 1 está modificado luego no habría problema. En cuanto al punto 3 si no fuera posible ya lo determinarían los Técnicos.

* Ruiz jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du bere taldearen jarrera garbi utzi dutela, 3. puntuarekin eta horrekin lotutako 4., 5., eta 6. puntuekin zalantzak dituzte. Ez dute aldeko botorik emango.

*Interviene el Sr. Ruiz (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos), manifiesta que su partido ya ha mostrado su posición, siguen teniendo dudas con el punto 3 que arrastra al 4, 5 y 6. No van a votar a favor de la moción.

Amaitu dira mintzaldiak.

Finalizadas las intervenciones.

Bozkatu dute O.E. EHBILDU eta Errenteria IrabaziZ taldeek aurkeztutako mozioa, gose-greban dauden preso palestinarrei elkartasuna adierazteari buruzkoa (erabaki honen azalpen-zatian jasota dago), 1. puntua aldatuta: “Elkartasuna adieraztea gose-greban egon diren preso palestinarrei eta giza

Sometida a votación la moción presentada por los Grupos Municipales O.E. EHBILDU y Errenteria IrabaziZ relativa a la solidaridad con las y los presos palestinos en huelga de hambre que consta en la parte expositiva del presente acuerdo, incluída la modificacion del punto 1: “Expresar su solidaridad



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net estatu

eskubideak urratuta dituen komunitate palestinar guztiari”.

con los presos Palestinos que han estado en huelga de hambre, así como de toda la comunidad palestina que ve vulnerados sus DDHH.”

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) eta aurkako 10 botorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) y 10 votos en contra (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV),

**ERABAKI DU**

**ACUERDA**

Onartzea O.E. EHBILDU eta Errenteria IrabaziZ taldeek aurkeztutako mozioa, gose-greban dauden preso palestinarrei elkartasuna adierazteari buruzkoa (erabaki honen azalpen-zatian jasota dago).

**Aprobar** la moción presentada por los Grupos Municipales O.E. EHBILDU y Errenteria IrabaziZ relativa a la la solidaridad con las y los presos palestinos en huelga de hambre, que consta en la parte expositiva del presente acuerdo.

Jarraian, bozkatu da EAJ/PNV taldeak aurkeztutako mozioa, Palestinari eta giza eskubideei buruzkoa (erabakiaren azalpen-zatian jasota dago).

Seguidamente pasa a votarse la moción alternativa presentada por el Grupo Municipal (EAJ/PNV) sobre Palestina y los derechos humanos que consta en la parte expositiva del presente acuerdo.

Udalbatzak, aurkako 11 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) eta aldeko 10 botorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos en contra (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) y 10 votos a favor (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV)

**ERABAKI DU**

**ACUERDA**

**Ez onartzea** Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos eta EAJ/PNV taldeek aurkeztutako mozioa, Palestinari eta giza eskubideei buruzkoa (erabakiaren azalpen-zatian ageri da).

**No aprobar** la moción alternativa presentada por el Grupo Municipal (EAJ/PNV) sobre Palestina y los derechos humanos que consta en la parte expositiva del presente acuerdo.

**10. Galdera-eskariak.**

**10. Ruegos y Preguntas.**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net estatu

Ez da galderarik edo eskaerarik egin.

----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:30 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut autonomia-erkidegoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

No se produce ruego ni pregunta alguna.

----------

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 19:30 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net estatu